

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

189/2021 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, "Ignacio Aldecoa Saria" gaztelaniazko ipuinen L. lehiaketaren deialdia onartzen duena

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak, literatura arteak sustatzeko garatzen dituen ekintzen artean, egokia iritzi dio "Ignacio Aldecoa Saria" gaztelaniazko ipuinen L. lehiaketarako deia egiteari.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea "Ignacio Aldecoa Saria" gaztelaniazko ipuinen L. lehiaketarako deialdia, 6.000 euroz hornituta.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onestea. Oinarri horiek espedienteari erantsita daude.

Hirugarrena. Gastu hori Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastu aurrekontuko 70.1.05.73.02.226.09.05 partidaren kontura ordainduko da (xedapen erreferentzia: 105.2290).

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 30a

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria

M^a INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

“Ignacio Aldecoa Saria” gaztelaniazko ipuinen L. lehiaketa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak “Ignacio Aldecoa Saria” L. gaztelaniazko ipuin lehiaketarako deia egiten du.

Oinarriak

1. Oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunean 16 urte beteta dituzten pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan. Ezin izango dute parte hartu aurreko bi edizioetatik edozeinetan saria lortu dutenek.

2. Ipuinek gaztelaniaz idatzita egon behar dute.

3. Parte hartzaileak ipuin bilduma bat bidali, eta horietako bat aukeratu behar du lehiaketara aurkezteko.

Bildumak, 20.000 hitz izan behar ditu, gutxienez, inprenta tipografiarekin idatziak (arial 12 edo antzekoa) eta tarte bikoitzean. Ipuinak jatorrizkoak izan behar dira, inoiz argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketa edo sariketa batean inolako saririk jaso gabeak.

4. Agiriak aurkeztea.

Lanak aurkezteko bi modalitate aurreikusten dira. Elektronikoki bidaliz gero, ez dira posta bidez bidali behar.

a) Posta bidez:

- Lehiaketara aurkeztzen den ipuina inprimatuta, sinadurarik gabe.
- Lehiaketara aurkeztzen den ipuin bilduma osoaren kopia bat euskarri informatikoan (CDa edo pendrivea), pdf formatuan.
- Gutun azal itxi bat, honako hauek dituen barruan:

Parte hartzailearen datuak, hirugarren oinarria betetzen duela jasotzen duen zinpeko adierazpena eta sinadura, oinarri hauen bukaeran ageri den I. eranskinaren ereduaren arabera.

Saritutako hautagaiei dagozkien gutun azalak baino ez dira irekiko. Ordura arte Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean gordeko dira, eta epaimahaiak ezingo ditu eskuratu.

Inprimatutako aleak, euskarri informatikoan dagoen kopiak eta gutun azalak identifikazio titulu bera izan behar dute, ondo ikusteko moduan, bai eta egilearen izengoitia ere. Ezinbestekoa da datu horiek bidalitako dokumentu guztietan idaztea.

Hiru elementu horiek hona bidali behar dira gutun azal batean sartuta:

Ignacio Aldecoa ipuin lehiaketa.

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saila.

Probintzia plaza 5, 3. solairua.

01001 Gasteiz.

b) Posta elektronikoa:

Mezu elektronikoa bat bidali behar da ialdecoa@araba.eus helbidera, era honetan:

I. Mezuaren gaia: [Jarri lanaren hizkuntza]-[jarri izenburua]-[jarri izengoitia].

Adibidea: Castellano-AI turista-Mogel.

II. Hiru fitxategi erantsi behar dira:

- Lehiaketara aurkeztzen den ipuina, pdf formatuan; fitxategi horri eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.pdf.

Adibidea: AI turista-Mogel.pdf.

- Lehiaketara aurkeztzen den ipuina txertatzen den ipuin bilduma osoa, pdf formatuan; fitxategi horri eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena: LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA-BILDUMAREN IZENBURUA.pdf.

Adibidea: Al turista-Mogel-The Blue Line.pdf.

- Oinarri hauen I. eranskina, datu pertsonalekin eta pdf formatuan; fitxategi horri eskema honi jarraituz jarri behar zaio izena: I. ERANSKINA-LANAREN IZENBURUA-IZENGOITIA.pdf.

Adibidea: I. eranskina-Turistari-Mogel.pdf.

Oinarri hauen bukaeran dago I. eranskin-eredua.

Saritutako lanei dagozkien datu pertsonalak baino ez dira irekiko. Ordura arte Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailean gordeko dira, eta epaimahaiak ezingo ditu eskuratu.

Adierazitakoarekin bat ez datorren edozein bidalketa baliogabe geldituko da oinarri hauek ez betetzeagatik.

5. Lanak aurkezteko epea 2021eko abuztuaren 20an bukatuko da, 23:59an (Espainiako penintsulako ordua). Data horren ostean, zigilu marka ikusita epe barruan postaz bidali zirela egiazta daitekeen dokumentazioa baino ez da onartuko.

Saila ez da izango jatorrizko lanak galdu edo hondatzearen erantzule, ez eta lehiaketan parte hartzen duten lanen posta arrunt edo Internet bidezko bidalketetan izan daitezkeen atzerapenena edo hirugarrenen erantzukizun den beste edozein gertaerarena ere.

6. Saria 6.000 eurokoa izango da. Zenbateko horri dagokion atxikipena egingo zaio.

7. Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatutako epaimahai kalifikatzaileak hartuko du erabakia, eta dagokion gutun azala irekita ezagutaraziko du.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sari hau emateko sortutako epaimahaia gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeek eta gizonek eratuko dute, eta batzuen eta besteen ordezkaritza orekatua izan beharko da. Lege horren beraren arabera, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan bi sexuek gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badute; gainerakoetan, bi sexuak ordezkaturata badaude.

8. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaiakideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

9. Epaimahaiak bildumako gainerako ipuinak baloratzeko aukera izango du, hainbat finalistaren artean zalantzarik izanez gero, erabakiak hartzen laguntzeko.

10. Sariak eman gabe geldi daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

11. Arabako Foru Aldundiak saritutako ipuina argitaratuko du lehiaketara bidalitako bildumarekin batera, ospe handiko argitaletxe batekin, epaimahaiak epaia eman eta hamabi hilabeteko epean. Horretarako, edizio kontratu bat sinatuko da. Lana argitaratzeak ez du eragingo inolako ordainketarik sariaz lortutakoaz gain. Saldutako kopien egile eskubideen aurrerapena izango da sariaren zenbatekoa.

Saria irabazten duen egileak lehiaketara aurkeztutako lana (ipuina eta ipuin bilduma) ustiatzeko eskubide eskusiboak lagako ditu, zazpi urterako, mundu osoan gaztelaniaz argitaratzeko.

12. Saririk jaso ez duten lanak ez dira itzuliko eta epaimahaiak epaia eman eta hurrengo egunetik aurrera hogeita hamar eguneko epean suntsituko dira, baita jaso diren gainerako fitxategi guztiak ere.


13. Deialdi honetan parte hartzen dutenek deialdian adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.

14. Deialdian parte hartzen dutenek emandako datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko ditu eta "Kultura sustapena" izeneko tratamenduetan sartuko dira, Arabako Lurralde Historikoan kultura jarduera sustatzeko. Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, honako hauetan ezartzen dena aplikatuko da: batetik, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, pertsona fisikoak babestekoa dena datu pertsonalak tratatzeari eta datuen zirkulazio libreari dagokionez.

15. Deialdian sortzen diren gai guztiak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailarena da, eta eskumen eksklusiboa da, gainera.

Indarreko araudia aplikatuko da, eta, zehazki, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.

16. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2021eko gastuen aurrekontuko partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.226.09.05 "Kultura sorkuntza eta jarduerak suspertzea"

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<h2>Literatura sariak</h2> <h3>Premios literarios</h3> <p>I. ERANSKINA • ANEXO I</p>	<h1>2021</h1>
--	--	---------------

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

* Derrigorrezko datuak ■ Datos obligatorios

LITERATURA LEHIAKETA ■ CONCURSO LITERARIO *

Hizkuntza ■ Idioma *

Aukeratzea / Seleccionar

Aukeratzea / Seleccionar

Idazlanaren izenburua ■ Título de la obra *

Ezizena ■ Seudónimo *

DATU PERTSONALAK ■ DATOS PERSONALES

Izena ■ Nombre *		
Lehen deitura ■ Primer apellido *		Bigarren deitura ■ Segundo apellido
Identifikazio agiria ■ Tipo de documento identificativo Aukeratzea / Seleccionar		Identifikazio zk. ■ N.º identificativo *
Sexua ■ Sexo Aukeratzea / Seleccionar	Adina ■ Edad	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico *
Posta helbidea ■ Dirección postal *		
Telefono mugikorra ■ Teléfono móvil *		Beste telefono bat ■ Otro teléfono

ZINPEKO DEKLARAZIOA:

- Honen bidez, adierazten dut goian adierazitako literatura lehiaketara

izenordearekin aurkeztutako

izeneko lana originala eta argitaragabea dela, eta ez duela saririk jaso beste ezein lehiaketa edo sariketatan, aurkezpen egunera bitartean.

- Lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen ditut
- Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta sari hau kudeatzeko helburuz bada.

DECLARACIÓN JURADA:

- Por la presente, declaro que la obra

presentada al concurso literario arriba indicado bajo el seudónimo

es original e inédita y no ha sido premiada, hasta la fecha de presentación, en ningún otro certamen o concurso.

- Acepto las condiciones que regulan esta convocatoria.
- Manifiesto mi consentimiento expreso para que Diputación Foral de Álava trate mis datos personales para la finalidad de gestionar este premio.

Tokia ■ Lugar	<input type="text"/>
Data ■ Fecha	<input type="text"/>

RE 21/228

Orria ■ Hoja 1/2



Literatura Sariak
Premios Literarios

2021

DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO ARGIBIDEA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudiak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatuko dituela eta "Kultura sustapena" tratamenduetan erantsiko direla, helburu honekin: Kultura jarduera sustatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkio-
la jakinaraziko beste inori, legez ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, Egoitza Elektronikoaz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz - Araba).

Argibide gehiago:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de "Promoción cultural" para la finalidad de promocionar la actividad cultural en el Territorio Histórico de Álava.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>